



Telepolis

Gorka Julio

Mundu berriaren eta zaharraren arteko arrakala

Egungo krisiak, kapitalismoaren historiako luzeenak eta sakonenak, eztabaida piztu du nazioartean, bizitza sozial eta ekonomikoko bi instituzio nagusien hondamendiari buruz. Bi instituzio nagusi horiek estatua eta merkatua dira. Krisi horren aurretik sistema ekonomikoa ez da inoiz hain unibertsalki zalantzan jarria izan.

‘Mundu berria’ eta ‘Mundu zaharra’, bien arteko arrakalan gaudela esan genezake, beraz. Denbora bitarte honetan, aldez, bi proposamen mota izango dira etengabe borrokan, eta denek dute teknologiarekin eta horrek sortutako aldatetekin zerikusirik. Noski, ‘Mundu zaharra’ sostengatu nahiko duten proposamenak ere izango dira, etorkizunik ez dutenak, baina botere estamentuen kontrolaren ondorioz eusteko gaitasuna izan dezaketenak.

‘Mundu berriari’ lotutako proposamenei dagokienez, bi motatakoak izan daitezke, datorrenak ez baitu zertan jendartearen gehiengoarentzat hobeia izan. Biek, hori bai, aurrekoarekin haustura bilatuko dute, eta haustura horiek izaeran ezberdinduko dira: haustura erreformatzaileak edo haustura iraultzaileak.

Haustura erreformatzaileak, kapitalismoaren fase honetan, merkatu estrategien bidez aurrera eramaten ari diren estrategiak dira. Teknologiarekin laguntzaz askotan, merkatuetan etenaldia bilatzen dute, benetako botere harremanak kolokan jarri gabe, egiturak berriro ahal izateko helburuarekin.

Haustura erreformatzailearen ereduak dira Uber edo AirBnB bezalako zerbitzuak, non merkatu zehatz bat apuritzen duten, baina momentu horretako eliteak ordezkatzuz.

Beti ere kapitalismo finantzarioarekiko morrontza eta kontrol zentralizatua ahalbidetuz.

Haustura iraultzaileak, aldiz, testuinguruko aldagai bat aldatuz, iraultza batek izango lituzkeen helburu berak dituen eraldaketa bat bilatzen dutenak dira. Eraldaketa horrek bereziki botere harremanetan eragiten du; denbora epe luzeagoan gertatzen bada ere, bere eraginak atzeraezinak izatea du helburu.

Haustura iraultzailerako ereduak sortzen ari dira, arlo ezberdinetan kapitalismo soilak eskaini ahal dituenak baino eredu hobeak sortuz. Software librea da horietan paradigma nagusia, baina ez da horretara mugatzen. Horri lotuta, produkzio molde berri bat eraikitzen ari delako zantzuak ere aurreikusten dira, p2p ekoizpen moldea dei dezakeguna. Nondik datorren ulertzeko, garrantzitsua da historian apur bat atzera joatea.

Bigarren Mundu Gerraren ondoren ekoizpena biderkatu egin zen, eta gogorki murriztu zen ekoizpen eskala optimoa. Horrek, alde batetik, kanpoan utzi zituen mendebaldeko herrialdeetako estatu kapitalismoa, eta, bestetik, mehatxupean jarri zituen AEBetako eta Europako enpresa handiak.

Garai horretan, komunikazioaren egitura ere transformatu egin zen: mundu deszentralizatu baten trantsizioa gertatzen ari zen, telegrafoaren eta nazioen mundutik komunikazio eredu banatura, p2p komunikazioaren mundura.

Bi aldaketen baturak, 1990eko hamarkadako muga komertzialen hausturarekin batera, komertzioaren hazkunde konstantea eragin zuen, eskala txikiagoa eta kapital intentsitate txikiagoa zuten periferiako agente berrien beharren gainean. Ondorio zuzena honakoa izan zen: gizakien historiako pobrezia mailaren jaitsiera handiena, baina baita gizarte desberdintasunen handitze nabarmena eta ezegonkortasun ekonomikoa ere.

Kontrako tendentzia horren sortzaile nagusia finantza kapitala izan zen, ez baitzen eskalaren murrizketara moldatu. Are gehiago, eskalak handitu zituen, 'finantzarizazioaz' eta 'sekurizazioaz' lagunduta, ekoizpen sistematik apartatuta eta modu erregularrean espekulazio burbuilak sortuz.

Bere eskala estrategiak jabetza intelektualaren gaineko legedia gogortzea ekarri zuen berriro zentralizatzeko egituren bidez (Google, Facebook...), Internet berriro definitzea beharrezkoa ez izan arren, eta, gainera, presioak gogortu zituen estatuak harrapatzeko.

Estrategia horrek merkatuaren eta estatuaren aldibereko hondamendia bakarrik ekar dezake, 'deskonposizioa' deitzen dugun fenomeno. Fenomeno hori ekoizpen ahalmenen hondamendiarekin batera garatzen da, eta krisia eta gerra ekartzen ditu. Fenomeno horiek krisiaren eta gerraren aurrekoak dira, eta ondoren lagundu egiten dituzte.

Baina software librearen jaiotza eta garapenarekin batera, ekoizteko eta banatzeko modu berri bat ere agertu zen. Eta bere asmo nagusia ez zen kapitala metatzea, ondare komun berri bat sortzea baizik.

Software librearen lehenengo garaipen handia: sistema eragile libre oso bat, GNU/Linux sistema, sortzea izan zen. Hortik aurrera, hacker mugimendua ez da inoiz gehiago izango *underground*-a. Ondare komun elektronikoa berri bat agertu zen milioika pertsonaren aurrean. Horrek guztiz aldatu zuen, betiko, aurreko hamarkadako izarra izan zen industria. Eskala handiko enpresetatik irismen handiko sistema batera pasatu zen, talde txiki askorekin, proiektuekin eta enpresekin. Horiek ondare komun bakarra zuten oinarri, baina multiformea, anitza eta dinamikoa zena.

Software librearen zikloa eta ekoizpen egitura beste hainbat alorretan ere azaldu zen. Ez-materialak eta kulturalak ziren objektuen ekoizpenak –musika, literatura eta ikus-entzunezko ekoizpenak– p2p teknologia baliatua zuen besteek baino lehen. Ez zen kasualitatea izan. Baina arrazoi beragatik, jabetza intelektualari buruzko legiazio berrien erasoak jasan zuen, eskala handiko industria kulturalaren presioaren eraginez.

Eskala handiko sistemaren krisia dagoeneko gogorregia zenean, zikloak berak, p2p ekoizpeneko egiturak berak, lehenengo urratsak eman zituen objektu fisikoen fabrikazioan. Gaur egun efizienteagoak diren autoak eraiki ditzakegu, merkeak

eta politak, jabetza intelektualik gabekoak, eta, edozein tailer txikitari, Wikispeed (<http://wikispeed.org>) bezalako kotxe elektrikoak egiteko proiektuak edota 40 makina industrial diseinatzen (aerosorgailuak, traktoreak, adreiluak egiteko makinak...) Open Source Ecology (<http://opensourceecology.org>) bezalako egitasmoak.

Hori da p2p ekoizpen moldea deitzen duguna. Softwarea ekoizteko balio du, baina baita objektu fisikoak edota edonolako zerbitzuak ekoizteko ere. Oparotasuna metatzen du komunalaren ezagutzaren formularen azpian, eta errentak xahutzen ditu kontrol zentralaren beharrik gabe, baita hierarkiarik edota eskala handiko erakundeen beharrik gabe.

Teknologia horiek, heldugabeak izan arren ere, baleko oinarria izan daitezke ekoizpen ehun lokalean finantza krisiaren ondorioei aurre egiteko, bai mikroenpresa industrialetan, baita enpresa ertain-txikietan ere, auzoko tailerretik hasi eta osagaien fabriketaraino.

Laburbilduz, gure begi aurrean agertzen ari diren fenomeno ezberdin horiek guztiak (finantza krisia, ekoizpen lokaleko autoak, 3D inprimagailuak, hacker mugimendua, software librea...) krisi handiago baten parte dira; ezagutu dugun kapitalismoaren (eskala handietan oinarritutakoa, deszentralizatua, hierarkikoa eta errentetan oinarritua) krisiaren parte.

Baina ekoizpen molde berriaren oinarritzko ezaugarriak aztertzen ari gara. Ekoizpen molde berri hori ekoizpen eskala txikietan oinarrituta dago, berdinen arteko harremanetan, lanaren hacker etika berrian eta, bereziki, ondare komuneko ezagutzan. Oinarri sendoa dirudi gizarte sistema eta sistema ekonomiko berri baterako trantsizioan. Eta garrantzitsua: hemen dago, funtzionatzen du; ez da kontakizun moral bat, errezeta magiko bat edota intentzio onak dituen aktibismoa.

Oharra: artikuluan erabiltzen diren Las Indias-en 'El modo de producción p2p' (<https://lasindias.com/el-modo-de-produccion-p2p>) dokumentuaren zati batzuen itzulpena Nagore Vegaren laguntzarekin egin dira.

Zurrumurruen analisisia

Interneteko sare sozialek zurrumurruen hedapenerako ingurune berria, bikaina eta globala direla badakigu. Arkaitz Zubiagak eta bere lan taldeak metodologia bat proposatu du publikatu berri duten ikerketa batean (<http://dx.doi.org/10.1371/journal.pone.0150989>), hedatzeko dituzten mekanismoei buruz gehiago jakiteko. PHEME informazioaren egiazkotasuna datu analisiaren bidez aztertzen saiatzen den proiektu europarraren markoan, bederatzi gertakari garrantzitsuren inguruko 300 zurrumurru kate aztertu dituzte (5.000 txio inguru).

Ikerketaren ondorioak asko badira ere, orokorra hauxe da: «faltsuak diren zurrumurruak egiazko direnak baino gehiago hedatzen dira». Datuak aztertzen hasi eta proposatutako metodologiari jarraiki, zera ikusi dute: benetakoak suertatzen ziren zurrumurruak, behin egiaztapena lortuta, hedapena geldotzen zutela. Aldiz, ondoren gezurtatzen zirenek, gezurrezkoak zirela frogatzeko ebidentzien faltan, hedapen handiagoa izateko joera zuten.

Zehazki, datuak erakusten dute benetakoak suertatzen diren zurrumurruak bi ordu inguru behar dituztela frogatuak izateko. Faltsuek, aldiz, 14 ordu inguru behar dituzte. Aldi berean, zurrumurruak, egiazkoak edo gezurrezkoak diren oraindik frogatu ez denean, hedapen gaitasun handiagoa lortzen dutela ere ikusi ahal izan dute.

Jendartearen gehiengo zabalak ez du kritikotasunik azaltzen jasotzen duen informazioarekin, eta zurrumurru hedatzaile bilakatzen dira. Baina, horiez gain, zenbait informazio agentziek azken orduko informazioak konfirmatu gabe ere publikatzen dituzte *reportedly* moduan, guztiz konfirmatu gabe, alegia.

Zurrumurruaren definizioa bera adosteko zailtasunak nabarmentzen ditu Arkaitzek. Horregatik, gertakari garrantzitsuak hautatu eta kazetarien laguntza beharrezko izan dute. Prozesu osoan zehar kazetarien papera berebizikoa izan da,

zurrumurrak identifikatu eta sailkatzeko, konfirmazioa edo ezeztapena identifikatzeko...

Teknologiak laguntza ematen dute, baina gizakiaren gain-begirada behar duten sistema sasi-automatikoaren bidezko giza konputazioa ezinbestekoa izan da oraindik ere.

Ikerketak alerta behintzat piztu behar digu asko zabaltzen diren mezuen inguruan. Gehien zabaltzen diren zurrumurruek gehiago irauten badute, kontu gehiagorekin zabaldu beharko genituzke; ez dute zertan egia izan, frogatu den bezala.

Etorkizuneko helburuen artean, jasotako datuetan oinarrituz, ikasketa automatikoaren bidez hobetu nahi dute prozesua, kazetariak egin beharreko lana errazteko. Kazetariak ordezkatzeari baino, horiek zurrumurruen aurrean dituzten mekanismoak hobetzea du helburu ikerketak.

Aztertutako txioak ingelesez dira, alemanezko gutxi batzuk kenduta. Euskarazko txioekin azterketarik egin ez badu ere, analisiak antzeko emaitzak emango lituzkeela uste du Arkaitzek. Hipotesi horiek frogatzeko, era honetako ikerketa gehiago egin beharko genituzke gurean; Zubiagak ere behin baino gehiagotan adierazi du era honetako diziplina anitzeko ikerketen beharra. 🤖